

ESPERIENTZIAREN IZENA: Women's Active Society of Hebron

OINARRIZKO DATUAK

- **Entitatearen izena:** Hebroneko Emakumeen Gizarte Aktiboa
- **Erakunde mota:** Elkartea
- **Sortze-urtea:** 1953
- **Jarduera-sektoreak:** Ahalduntze ekonomikoa
- **Egitura:** Boluntarioak
- **Kokalekua:** Hebron
- **Jarduera-eremua:** Tokikoa.

HARREMANETARAKO DATUAK

- **Harremanetarako pertsona:** Maysoun Qawasmi
- **Helbide elektronikoa:** maysoun_q@yahoo.com

SINTESIA

ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Hebroneko Emakumeen Gizarte Aktiboa irabazi asmorik gabeko elkarte independentea da, 1953. urtean sortua. Palestinako emakumeak hango gizartearen erronka sozialei, politikoei eta ekonomikoei aurre egiteko gai izatea du helburu.

TESTUINGURUA

Hebrongo testuingurua zaila da palestinar herritarrentzat, batik bat emakumeentzat. Hebrongo emakume palestinarrek H2 zonako Israelgo ejerzitoaren patruilen indarkeriari, kolonoen jazarpenari eta gizon palestinarrek emakumeekin duten jarrera kontserbadoreari aurre egin behar diete.

Egoera hori eramateko, ahalduntze ekonomikoan jartzen du indarra Women's Active Society of Hebron-ek.

INFORMAZIO OROKORRA

Erakundearen helburuak:

1. Emakumearen ahalduntze soziala, kulturala eta ekonomikoa sustatzea.
2. Aisialdia modu konstruktiboan erabiltzea, adin eta egoera guztietako emakumeak gizarte-aldaketako partaide izan daitezzen.
3. Emakumeei prestakuntza eskaintzea, haien produkzio-proiektuak abian jar ditzaten.
4. Women's Active Society of Hebron-ek tokiko emakume-komunitatean betetzen duen eginkizuna aktibatzea, zerbitzuak eskainiz eta zenbait gai sozialen inguruko ezagutza zabalduz.
5. Boluntario-lana eta emakumeen partaidetza sustatzea, komunitate-garapenari begira.
6. Pobreziaren eraginak arintzea.
7. Politikan parte hartzeari buruzko kontzientzia sortzea emakumeen artean.

Erakundearen jarduerarik garrantzitsuenak

1. Jostura-ikastaroak.
2. Ile-apainketako ikastaroak.
3. Ehuntzen ikasteko ikastaroak.
4. Etxeko lanei, gozogintzari eta elikagaiak prozesatzeari buruzko ikastaroak.
5. Urteroko erakusketak, ospakizunak eta mintegiak.
6. Egoera ahulean dauden familiak bisitatzea. Laguntza ekonomikoa eta materiala ematea, batez ere okupaturiko zonetan eta iheslarien esparruetan.
7. Gai sanitario, sozial eta politikoei buruzko solasaldiak, baita emakumeen partaidetza politikoari buruzkoak ere.
8. Josturari eta kosmetikari lotutako proiektuak, diru-sarrerak sortzeko.
9. Emakumeek kontzientzia hartzea indarrean dagoen legediaz eta Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren 1325 ebazpenaz.